



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018. 03.26

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita seian, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Nerea Letamendia Beloso	
Jokin Azkue Arrastoa	
Iñigo Alonso Sarasibar	
Idazkaria:	1. Aurreko aktak onartzea.
Begoña Garmendia Vazquez	2. Emendek elkarteak San Blas Jaiak antolatzeko diru-laguntza.
Kontuhartzailea:	3. 2017ko Tolosa&Co eta Tolosako Udalaren arteko Lankidetzaz Hitzarmenaren zuriketa.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	4. Tolosako Udala eta Tolomendiren arteko dinamizazio hitzarmenaren likidazioa.
	5. Gipuzkoako Merkatarien Bazkudeari diru-laguntza izenduna ordaintzeko proposamena.
	6. 83/2017 eta 9/2018 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTAK ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko martxoaren 19an eta 21ean egindako batzarraren aktak aztertu ondoren, batzarkideek aho batez onartu dituzte bi aktak.

2. EMENDEK ELKARTEAK SAN BLAS JAIK ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZA.

Jose Angel Aguirre Mugicak 2018ko San Blas jaiak antolatzeko diru-laguntza eskaera egin dio Tolosako Udalari Emendek elkartearen izenean.



TOLOSAKO
UDALA

Eskaerarekin batera aurkeztu du gastu eta sarreraren aurrekontua.
12.119,93 euroko gastua aurreikusten dute; sarrera, berriz, 8.123 eurokoa. Aldea, beraz, 3.996,93 euro.

Egitarauaren azterketa eginda, berau irizpide egokiz antolatua dagoela eta interes publikoari erantzuten dio.

Honetaz gainera, gastu eta sarreraren aurreikuspenak sinesgarriak eta orekatuak dira.

Tolosako Udalbatzak 2018rako onartutako aurrekontuetan, bestetik, 1.575 euroko diru-laguntza izenduna aurreikusi zen.

Hau guztia kontuan harturik, eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorri, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Emendek elkarteari 1.575 euroko diru-laguntza ematea, Tolosako Udalak diru-laguntzak banatzeko ordenantzan ezarrita dauzkan baldintza guztiak bete ondoren.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari eta Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari ematea.

3. 2017KO TOLOSA&CO ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HIZARMENAREN ZURIKETA.

Aurrekariak:

2017ko apirilaren 12an Tolosako Udalaren eta Tolosa&Co Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Elkartearen artean lankidetzarako eta akordio ekonomikorako hitzarmena sinatu zen, 2016ko martxoaren 3an Tolosako Udalaren eta Tolosa&Co Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Elkartearen artean sinatutako Lankidetzeta Publiko-Pribatuaren akordio-markoaren baitan

Hitzarmen honen helburua da akordio ekonomiko bat ezartzea lankidetzeta-marko egoki baten barruan, jarduera-lerro estrategikoak planifikatzeko eta garatzeko. Akordioan diru-laguntza jaso dezaketen ekintzak eta Tolosako Udalak izendatutako zuzkidura ekonomikoaren banaketa nolakoa izango den zehazten da.



TOLOSAKO
UDALA

- Animazio- eta dinamizazio-jarduerak: 10.000,00 €
- Egitura-gastuak: 4.000,00 €
- Proiektu estrategikoak: 16.000,00 €

- Zuriketa:

Zuriketa egiteko, Tolosa&Co elkarteak 2017ko otsailaren 2an hitzarmenaren zehazten den dokumentazioa aurkezten du, zehazki:

- Ekintzen memoria
- Likidazio Taula
- Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen agiriak
- Fakturen taula
- Faktura eta ordainagiriak

- Memoria

Tolosa&Co elkarteak 2017 urtean zehar gauzatutako ekintzen memoria aurkezten da, zehazki:

1. Braderie
2. Aste Santuen Dinamizazioa
3. Visa promozioa: New York bidaia
4. Gau Zuria/Lore eta Landare Azoka
5. San Joanetako Sustapena
6. Visa Promozioa: merkatu promozioa
7. Gune Biziak proiektuak
8. Ostalaritzako promozioa
9. Larunbat arratsaldeak
10. Irudia eta Publizitatea
11. Sare Sozialak eta Web orria
12. Kolaborazioak
13. Eguberriak

Gauzatutako ekintza bakoitza azaltzen da, eta hitzarmenean zehaztutako helburuekin bat datoz.



TOLOSAKO
UDALA

○ Likidazio taula:

GASTUAK ESTRUKTURALAK	Administrazioa, Mutuak, Gizarte Segurantzak, Egoitza, Gastu bankarioak, informatika, OTC/MBT	89.922,69
ESTRATEGIKOAK	Visa Tolosa&Co, Sare sozialak + web, Formazioak, Publizitatea, Gune Biziak, Singular Dendak, Larunbat arratsaldeak, aste santuak, Gau Zuria, Berriz enpresa, azoken dinamizazioa	39.282,65
PROMOZIOAK ETA KANPAINAK GABONAK	Braderie, San Joanak, Elkartekide topaketa Dekorazioa, promozio/sariak, komunikazioa, ikuskizunak, Gabonetako kolaborazioak	13.673,13 47.175,06
KOLABORAZIOAK	Arpegi, Veleta, Juanito Lope, Udaberri, Mikologia, udaletik eskatutako txekak	4.935,02
BESTELAKOAK	Aurreko urteko gastuak: poliespan lore landare 2016, online...	4.252,91
GUZTIRA		199.241,46 €
SARRERAK		
KUOTAK	Hileroko kuotak 18€	50.348,93 €
INSTITUZIOAK	Udala: hitzarmena, euskara saila	37.300,00 €
INSTITUZIOAK	Hirigune, OTC/MBT, Dibulgaziozkoak	85.923,95 €
CRNAVARRA	Erabilpenaren rappel-a eta ekarpen ekonomikoa	7.333,11 €
ORDAINKETAK	Braderie kuotak, gabon dekorazioa, opari papera...	10.995,90€
BESTELAKO SARRERAK	Udaletik eskatutako txekak, 2016 ekitaldiko ez-ordaintzeak, IKT igeriketa	7.255,32€
GUZTIRA		199.157,21 €

○ Ziurtagiriak

Tolosa&Co elkarteak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela frogatzen duten agiriak aurkeztu ditu.

○ Fakturen taula

Tolosa&Co elkarteak ekintzak gauzatzeko ordaindutako faktura zerrenda aurkezten du. Zerrenda honetan, ekintza bakoitzean udalari egokitzen dion portzentajea definitzen du kasu bakoitzean, eta honen arabera diru-laguntzara aurkezten den zenbatekoa zehaztuta.

- Egitura-gastuak: 4.598,42 €
 - Proiektu estrategikoak: 17.756,74 €
- Formakuntza: 884,00 €
- Braderie: 2.272,43 €



TOLOSAKO
UDALA

- Aste Santuak: 669,54 €
- Gau Zuria: 403,96 €
- VISA Azokak: 1.575,99 €
- Gune Biziak: 460,73 €
- Tolosa Goxua: 300,00 €
- Mikologika: 483,32 €
- Larunbat Arratsaldeak: 2.179,97 €
- Irudia eta Publizitatea: 615,00 €
- Sare Sozialak: 7.911,80 €

- Animazio- eta dinamizazio-jarduerak: 10.367,25 €

San Joanak: 509,09 €
Kolaborazioak: 154,77 €
Gabonak: 9.703,39 €

Guztira aurkezten diren 32.722,41 eurko zenbatekoa onartzen da, eta ikusirik 30.000,00 euroko diru-laguntza finkatu zela eta horren % 50a sinatzerakoan ordaindu zitzaiela ikusirik, proposatzen da dagokion ordainketa egitea: 15.000,00 €.

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2017ko Tolosa&Co eta Tolosako Udalaren arteko Lankidetzaz Hitzarmenaren zuriketa onartzea eta Tolosa&Co elkarteari 15.000,00 €-ko ordainketa egitea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari eta Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuari ematea.

4. TOLOSAKO UDALA ETA TOLOMENDIREN ARTEKO DINAMIZAZIO HITZARMENAREN LIKIDAZIOA.

Gobernu Batzarrak, 2016ko abenduaren 26an, besteak beste, erabaki zuen Tolomendirekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea, 2017ko abenduaren 31 arte. Hitzarmen horretan jaso zen 21.000 euroko diru-laguntza ematea Tolomendiri.

Erabaki zen, hain zuzen ere, 2017 urtea amaitu ondoren eta ohiko prozedurari jarraiki, diru-laguntzaren kopuru osoa ordainduko zela, beti ere behar bezala justifikatzen badira egindako gastuak.



TOLOSAKO
UDALA

Aipatutako hitzarmena sinatu zen 2017ko urtarrilaren 17ko datarekin.

Beraz, adostutakoaren arabera, 2018ko otsailaren 2an, Tolomendik honako dokumentu hauek aurkeztu zituen Tolosako Udalean:

- 2017urteko behin betiko memoria
- Gastu eta sarreren likidazioa
- Faktura konpultsatuak
- Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko ziurtagiriak
- Dinamizatzailearen Gizarte Segurantzako baja agiria
- Jasotako nominen kopiak

Behin dokumentazio hori guztia aztertuta, ondorengo **ondorioztatu da:**

Lehena.- 2017 urterako hitzarmenean jasotako ekintzak burutu direla.

Bigarrena.- Hitzarmenean jasotakoaren arabera, Tolosako Udalak gastuen %35 finantzatuko lukeela, gehienez, 21.000 euroko kopurua izanez. Ekintzen kasuan ez denez gehienezko kopurura iritsi eta dagozkion kalkuluak egin ondoren, 17.802.,10 €-ko kopurua izango litzatekeela.

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA- Tolomendiri **17.802,10 €-ko** diru-laguntza ematea, 2017ko urteari dagozkion ekintzen likidazioa egiteko.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari eta Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuari ematea.

5. GIPUZKOAKO MERKATARIEN BAZKUNDEARI DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA ORDAINTEZKO PROPOSAMENA.

- Aurrekariak:



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako udalak Tolosako enpresen lehiakortasuna eta enpresarien profesionalizazioa lantzeko asmoz Gipuzkoako Merkatarien Federazioarekin hitzarmen bat sinatu zuen 2017 urtean Tolosan Singular Dendak programa martxan jartzeko.

2017 urtean, Gipuzkoako Merkatarien Federazioak Singular Dendak proiektua eskualdeetako buruetan martxan jartzeko laguntza jaso zuen GFAtik eta jasotako laguntzarekin 6 dendetan aplika zitekeen soilik programa Tolosan. Horrela, enpresa gehiagotara iritsi ahal izateko udal ekarpen bat beharrezkoa zela erabaki zen.

Proposamena Tolosa&Co merkatarik elkartarekin eta programaren proiektu pilotuan parte hartu duten merkatariekin baloratu zen eta bai parte-hartzaileak, baita Tolosa&Co egokia ikusi zuten hitzarmen hau sinatzea.

- Programaren garapena:

Proiektua hitzarmenean zehaztutakoaren arabera garatu da. Martxoan Gipuzkoako Merkatarien Bazkondearekin batera 2017ko parte-hartzaileak aukeratu ziren, eta ondoren, beharrezkoak ziren talde saio naiz banakakoak garatu direlarik.

Parte hartzaile guztietatik 11k lortu dute Singular Dendak izendatzea, gainontzeko dendei aurrerago emango zaielarik aukera.

- Ordainketak:

Sinatutako hitzarmenean Tolosako udalak programa horretarako 6.000 € jartzen dituela zehazten da, 1100 481.01. 43100 partidaren eratorritako jasota daudenak

Ordainketa ondorengo eran izango dela zehazten da:

- %50 hitzarmena sinatzerakoan
- %30 proiektua garatzen hasi eta 4 hilabeteetara.
- Gainontzeko %20a likidazio osoa aurkezterakoan.

Nolanahi ere hurrengo urteko lehen hiruhilekoan gauzatutako proiektuaren memoria eta justifikazio fakturak aurkeztu beharko direla aipatzen da.

Hitzarmena sinatzerakoan Kontuhartzaitzatik %100eko zenbatekoaren ordainketa egin zitzaien.

- Zuriketa:

2018ko otsailaren 9an Gipuzkoako Merkatarien Bazkondeak hitzarmenaren zuriketarako beharrezko memoria eta gastuen ziurtagiriak aurkeztu ditu.



TOLOSAKO
UDALA

6.000,00 €-ko gastua ondoren eran eta dagozkien agiriekin justifikatu dira:

- o 1.200,00 € Gipuzkoako Merkatarien Bazkundeko pertsonalaren kostuekin (parte hartu duten pertsonen dedikazioa eta bakoitzaren nomina bat aurkeztuz)
- o 4.800,00 € kanpo zerbitzuen enpresen fakturak, eta hauen portzentaje bat inputatuz Tolosako proiektuari.

Aurreko guztia kontuan izanda eta Tolosako Udaleko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA- Gipuzkoako Merkataritza Bazkundeari aurkeztutako diru-laguntza zuriketa onartzea.

BIGARRENA- Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari eta Merkataritza, Feriak eta Turismo departamentuari ematea.

6. **83/2017 ETA 9/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.**

Kontuhartzaitzak **83/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **21.479,74 €**-koa.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA- **83/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **9/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **93.720,56 €**-koa.



TOLOSAKO
UDALA

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 9/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA